



**Arartekoaren ebazpena, 2011ko azaroaren 29koa. Horren bidez, amaitutzat ematen dugu gure esku-hartzea hautapen prozesu batean parte hartu zuen eta prozesu horren administrazio espedienteari buruzko informazioa eskatu zuen interesdunaren kexan.**

### **Aurrekariak**

Mediku espezialista (kirurgia kardiobaskularreko medikua) lanpostua betetzeko iragarritako hautapen probetan parte hartu zuen interesdunak erakunde honetara jo zuen kexa bat jartzeko, haren ustez, hautapen prozesuan zenbait irregulartasun larri jazo zirelako. Aipatu probak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko 2008ko Lan Eskaintza Publikoari zegozkion.

Kexa onartuta, erakunde publikoaren laguntza eskatu genuen eta, hautapen prozesuaren jarraipenak kalte gehiago eragin ez zezan, proba horiek behin-behinean eten zitezen iradoki genuen.

2010eko martxoaren 18ko idazkiaren bitartez, Zuzendaritza Nagusiak prozesua behin-behinean etengo zela eta informaziorako espediente bat irekiko zela jakinarazi zigun.

Etete hori amaitu eta xede horretarako hainbat neurri hartu ondoren, prozesuak haren bidea jarraitu zuen.

Hori gorabehera, kexagileak berriro esan zigun ez zegoela ados, behin baino gehiagotan eskatu bazuen ere, ez baitzitzaien hautapen prozesu horren inguruko informazio zehatza eman.

Prozesua behin-behinean eten arte kalifikazio-epaimahaiak hartutako erabakien edukiaren berri izan nahi zuela gailendu zuen, prozesuaren azken emaitza alde batera utzita.

Interesdunaren eskaera izapidetzeko eragozpenik ez zegoela uste genuenez, 2010eko uztailaren 13an erakunde publiko horri zuzendu gintzaizkion eta iritzi honen berri eman genion, baita aipatu izapidetza bideratzea laga zezan eskatu ere.

Osasun administrazioaren jarduerarik eza kontuan hartuta, 2011ko maiatzaren 25ean ildo hori azpimarratu genuen eta, ondoren, telefono bidezko zenbait gestio egin genituen. Hala ere, egun oraindik ez dugu administrazioaren erantzunik jaso eta ez daukagu izapidetza bideratzearen gaineko berririk.





## Gogoetak.

Lehenik eta behin, adierazi behar dugu, dagoeneko behin baino gehiagotan egin dugun moduan, herri-administrazio batetara idatziz jotzen duen eta aipatu administrazioaren jarduera jakin bat eskatzen duen herritar orok eskubidea duela administrazioaren erantzuna jasotzeko, erantzunaren izaera zein izango den kontuan hartu gabe.

Arartekoak sarritan salatu du administrazioaren isiltasuna oso kaltegarria dela. Izan ere, isiltasunak defentsarik gabeko egoeran uzten ditu herritarrak, ez baitakite administrazioak zein borondate duen haien eskaerei buruz eta ezin dute eskatutakoaren erantzuna berrikusi.

Horrez gain, esan behar dugu Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde honekin lankidetzan aritzeko prest egon ez zela. Jarduteko modu hori eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak, lehentasuna emanik eta al bait lasterren emateko legezko betebeharraren aurkakoa da (Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua). Laburbilduz, aurrekarietan aipatu dugunaren arabera, osasun administrazioak ez ditu bete erakunde honekin dituen legezko betebeharrak.

Kexak hizpide duen gaia aztertzeko, beharrezkoa da aintzat hartzea administrazioaren kide anitzeko organo bati esleitutako jardueraren adierazpenari dagokionez, hala nola, parte-hartzaileak aztertu behar dituzten kalifikazio epaimahaiei dagokienez, hautapen proba bakoitza zuzentzeko irizpideek, oposiziogile bakoitzaren espedienteak osatzen duten agiriek, aktek, etab. jarduera hori gauzatzen den administrazio espedientearen zati direla, zalantzarik gabe.

Horren harira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikulua partikularrek herri-administrazioei eska diezazkieten gutxieneko eskaerak biltzen ditu. Eskubide horiek "Herri-administrazioaren jarduera" izeneko laugarren tituluan aipatzen dira eta, zehazki, -arau orokorrak- izeneko I. kapituluan. Orokortasun horien artean izaera anitzeko kontuak daude, hala nola, askotariko eskubideak, erantzukizuna espedienteak izapidetzerakoan, ebazteko betebeharra, ustezko ekintzen balioa, aurrerapen teknologikoen gehitzea edo kopien balioa, etab.

Herritarrek herri-administrazioetara jotzen dutenean dituzten eskubideen taulari lotzen bagatzaizkio, lehenik eta behin, artikulua a) atalak hauxe dio: *"interesdunak badira, edozein unetan jakin dezakete prozeduraren izapideak zertan diren, eta prozedura horietako agirien kopiak lor ditzakete"*.

Prozeduran interesdunak diren pertsonak edozein unetan eta edonola baliatu dezaketen eskubidea da.

Halaber, aipatu 30/1992 Legearen 31. artikuluan arautzen da administrazio prozedurako interesdunaren izaera. 1. atalak honako hau xedatzen du:



*Administrazio prozeduraren interesdun dira:*

*Prozedurari hasiera eman diotenak, norbanakoen nahiz taldeen eskubide edo bidezko interesen titular modura.*

*Prozeduran har daitezkeen erabakiek uki ditzaketen eskubideak dituztenak, nahiz eta beraiek hasiera eman ez prozedurari.*

*Ebazpenak uki ditzakeen norbanakoen nahiz taldeen bidezko interesak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.*

Horrela, kasu honetan, erreklamatzailak parte hartu zuen prozesuaren administrazio espedientea da eta, noski, bertan interesduna da. Hortaz, 30/1992 Legearen 35.a) artikuluan xedatutako eskubidea onartu behar zaio.

6. Beste ikuspegi batetik, ez da ahaztu behar administrazio gardentasuna herri-administrazioen jarduera ororen irizpide orientatzailea dela eta horren xedea baliabide publikoen kudeaketan legezketasuna eta eraginkortasuna betetzen direla bermatzea dela, baita botere publikoetan mesfidantza sortzen duen eskuragarritasunik ezaren irudia ezabatzea ere.

Azken batean, herritarrek herri-administrazioaren jarrera ezagutzeko duten eskubidea benetan baliatzeko eta administrazio erabakien legezketasuna eta aukera kontrolatzeko aukera ematen du.

Zehazki, herri-administrazioen zerbitzura lan egiten duten langileei dagokienez, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuak bertan arautzen diren gaien inguruko administrazio jardueren gardentasun eta publizitate neurriak gehitzen ditu ez bakarrik zioen azalpenean, baita artikuluetan ere.

55.2 artikulua, besteak beste, hauxe dio:

*"Estatutu honen 2. artikulua aipatzen dituen herri-administrazioek, erakundeek eta organismoek haien funtzionarioak eta lan-kontratudun langileak hautatuko dituzte lehen adierazitako konstituzioaren printzipioak eta jarraian ezarritakoak bermatzen diren prozeduren bitartez:*

(...)

*b) Gardentasuna*

(...)"

Aurrekoagatik guztiagatik, gure ustez, kasuan kasuko herri-administrazioan langileak hautatzeaz arduratzen den organoak hautapen prozesu bakoitzean prozedura horri lotutako honako alderdi hauen berri eman beharko du:



- aukeratutako hautapen sistema zehazteko jarraitutako irizpideak: oposizioa, oposizio-lehiaketa eta lehiaketa.
- hautagai bakoitzak lortutako puntuazioa, aipatu puntuazioa zehatz-mehatz adierazita.
- . - hautapen prozesuaren garapenean jazotako gorabeherak, zehaztasunak eta arrazoiak adierazita.

Erreklamazioak hizpide duen gaia eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak ikusirik, ondorio hau helarazten dizugu.

### Ondorioa

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, lege eskakizunez, kexagileak egindako eskaerari arrazoizko erantzuna eman behar dio eta eskatutako administrazio espedientearen gaineko informazioa eman behar dio interesdunari.

.

